

Donostia, 2018ko ekainaren 29a

## ERREFUXIATUEI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, UDALBATZAN AZTER DADIN, errefuxiatuen arreta eta harrera hobetzeko beharraren gainekoa.

### JUSTIFIKAZIOA

Euskadi igarobide bat da, eta harrera lurraldea izan behar du. Alde horretatik, espero dugu gure lurraldera iristen diren guztiak errespetuz eta duintasunez hartzea eta ongietorriak sentiaraztea.

Eusko Jaurlaritzak ardurak bere gain hartu behar ditu harreraren gaian; kezkarri zaigu errefuxiatuen aldeko erakunde eta kolektibo sozialek denbora daramatela hori salatzen, eta Euskadi oraindik ez dagoela prest. Argi dago ez dela falta neurri egokiak ezartzea, ez baitago tokirik, ez nahikoa bitartekorik, ez protokolo argi eta finkaturik. Ezinbestekoa da harrera politika integral bat, koherentea, estrategikoa eta nahikoa funts dituen. Iheslariak Laguntzeko Euskadiko Batzordearen datuen arabera (CEAR), 2017an, asilo eskaerak aurreko urtekoak baino bi aldiz gehiago dira.

Era berean, premiazkoa da atzerritarren legea aldatzea. Lege guztiz bidegabea da, herritarrak kategorizatzen dituen eta pertsonen portzentaje bat eskubiderik gabe bizitzera kondenatzen duena, arautzat aplikatzen baitu salbuespenezko araubide bat. Aquariusen iritsi ziren pertsonak, Donostiara eta Bilbora autobusez iritsi zirenak duela gutxi, atzerritarrentzako zentro itxietan sartzeko arriskuan daude. Gogorarazten dugu migratzea ez dela delitu bat, baizik eta giza eskubide bat. Eta inor ez da preso sartu behar bere eskubidea erabiltzeagatik.

Erreskatatutako guztiek nahikoa sufritu dute, eta gure betebeharra haiek babestea da. Orain ez da egokitzen ihesbideak edo burokrazia bilatzea pertsona hauei berriz ere etorkizuna lapurtzeko. Babesa merezi dute, eta espero dugu hala beren egoera konpontzea.

Kezkatuta gaude, eta uste dugu denok arduratu behar dugula xenofobiaren eta arrazismoaren eta gorroto diskurtsoen eta horren guztiaren erabilera politiko bidegabearen gorakadari heltzen. Pedagogia asko behar da, lan asko, eta elkarbizitzaren aldeko apustu politikoa.

Beraz, eta azaldutakoarekin bat etorritz, Harrera Sistema prest egon behar da behar dutenentzat, eta beharrezkoa da kudeaketa hobetzea, baita toki gehiago jartzea ere, Euskadin egun daudenak beteta edo erreserbatuta baitaude, haietan sartzeko itxaron zerrenda luzeekin.

Hori dela eta, hauxe da gure

### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Estatuko gobernuari eskatzen dio egun dauden harrera tokiak ugaritzeko, bai errefuxiatuentzat eta bai migranteentzat, Estatu osoan.
2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala hausnarketa prozesu bateratu bat, Euskadiko erakunde maila guztietan egiten ari diren migrazio politikei koherentzia eta ikuspegi estrategikoa emateko, eta erabil dezala ezarritako funtsa errefuxiatuen krisian laguntzeko Eusko Jaurlaritzako aurrekontu orokorrean, migratzaileentzat, errefuxiatuentzat eta bidean daudenentzat egiturazko babesa izan dadin.
3. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio martxan jar dezala, zerbitzu espezializatutzat duen eskumenarekin bat etorritz, migratzaileentzako eta errefuxiatuentzako harrera, dauden programak osatuko dituzten programa osagarrien bidez, erakunde espezializatuen eskaerei erantzuteko, hala nola lehen harrerako aterpetxe bat sortzea eta etxebizitza eskubidea eta halako eskubideak benetan betetzea, beste eskubideak betetzeko ezinbestekoak baitira.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

**irabazi**  
**DONOSTIA**

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - [www.irabazidonostia.org](http://www.irabazidonostia.org)

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.